



**2025/2026 DENBORALDIKO ERREGE KOPAKO FINALERAKO SARREREN ZOZKETARAKO
BALDINTZAK
ATLETICO MADRIL – REALA**

1. Artikulua.- Aplikazio eremua

2026ko martxoaren 18an, asteazkenez, REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL, SADek (aurrerantzean, REALA edo KLUBA) zozketa egingo du.

Zozketa horretan, 2002ko urtarrilaren 1az geroztik KLUBean alta emanda dauden eta honako baldintza hauek betetzen dituzten abonatu guztiek (aurrerantzean, "Bazkideak") parte hartuko dute:

- REALEko Bazkide izatea 2026ko martxoaren 4an.
- Bazkide gisa dituen eskubideak etenda ez izatea.
- *Bat, Bi, Hiru, Lau, Bost eta Sei* kategoria duten eta Anoetan eserlekurik esleituta ez duten Bazkideak ez izatea.

Gainera, zozketan parte hartzen dutenek izena emanda eduki behar dute REALAk bere web orrian (www.realsociedad.eus) horretarako aldez aurretik prestatu zuen formularioan, dela bakarka, dela taldean, beste Bazkide batzuekin batera. Izena emateko epea astelehenean, martxoak 9, 16:00etan hasi zen eta ostiralean, martxoak 13, 20:00etan amaitu zen.

Zozketaren helburua izango da eskatzaileei zozkatzen diren sarreretako bat eskuratzeko eskubidea ematea. Sarrera bakarra (1) eskuratu ahal izango da eskatzaile bakoitzeko. Bazkide bakoitza (ID bakoitza) eskaera batean (1) bakarrik dago inskribatuta, eta sarrera bakar bat (1) eskuratu ahal izango du.

2. artikulua. - Zozketan izena ematea eta zozketako partaidetza kopurua

Bazkide bakoitzak (ID bakoitzak, alegia) zozketarako partaidetza bat (1) izango du, Bazkide izateagatik. Hau da, Bazkide bakoitza soilik eskaera batean (1) dago inskribatuta, eta sarrera bakar bat (1) eskuratu ahal izango du.

Zozketan izena eman ondoren, sistemak eskaera edo erreferentzia zenbaki bat esleituko dio automatikoki eskaera bakoitzari, eta hori izango da zozketa honetan parte hartzeko zenbakia.

Sarrerak eskatzeko formulario bera betez eskaerak taldean (gehienez ere lau (4) Bazkideko taldea) egin duten Bazkideek eskaera edo erreferentzia zenbaki bakarrarekin

parte hartuko dute zozketan. Izena ematean sistemak automatikoki esleitu dien eta taldeko eskatzaileari bidali zaion eskaera edo erreferentzia zenbakia izango da.

Bazkide ID batek ezin izango du inola ere zozketan sarrera bat (1) baino gehiago eskuratzeko eskubidea izan.

KLUBak zozketako irabazle bat aurkitzen ez badu edo zozketako irabazleak sarrera eskuratzeko eskubidea ezartzen diren epeetan eta dokumentu honetan ezartzen diren gainerako baldintzetan onartzen ez badu, irabazleak eskatutako sarrerak esleitu gabe geratuko dira. Kasu horretan, sarrera -edo sarrerak, eskaera bateratua egin bada-, zozketan ezarritako hurrenkeraren arabera esleituko da/dira zozketan azken sarrera jaso duenaren atzetik geratu diren Bazkideen artean.

3. artikulua. - Zozketa egiteko prozedura

Zozketa egin aurretik, REALAk ezarritako baldintza guztiak bete ondoren zozkatutako sarrerak eskuratzeko eskubidea duten eta izena eman duten Bazkide guztien zerrenda bat argitaratuko du bere web orrian (www.realsociedad.eus). Zerrenda horretan informazio hau jasoko da:

- Bazkide IDa;
- Bazkide bakoitzari edo, hala badagokio, gehienez lau (4) Bazkidek osatutako talde bakoitzari esleitutako eskaera edo erreferentzia zenbakia.

Esleitutako eskaera edo erreferentzia zenbaki guztiak zozketa egiteko erabiliko den programa informatikoan sartuko dira. Erreferentzia zenbaki irabazlea ausazko zenbakiak sortzeko aplikazio informatiko bat erabiliz lortuko da, eta ausazko zenbaki horien artean soilik zozketan parte hartzen dutenen eskaera edo erreferentzia zenbakiak egongo dira. Zenbakien ausazko sekuentzia geldiarazten duen botoia sakatu ondoren, pantailan geratzen den zenbakitik gorantz (pantailako zenbakia barne) hasiko da eserlekuak esleitzen, dauden sarrera guztiak esleitu arte. Azken eskaera zenbakira -zenbakirik altuena- iritsi eta zozkatzen diren sarrera guztiak agortu ez badira, "1" eskaera zenbakitik jarraituko da, eta, berdin-berdin, goranzko hurrenkeran dauden sarrera guztiak esleitu arte.

Zozketa hasi ondoren, arrazoi teknikoengatik edo KLUBaren kontroletik kanpoko arrazoiengatik etengo balitz, hasieratik egingo litzateke berriro, eta ordura arte egindako jarduera guztiak baliogabetuta geratuko lirateke.

4. artikulua. - Zozketaren emaitza jakinaraztea eta sarrerak bidaltzea

Zozketaren ondoren, prozesuan izena emandako Bazkide bakoitzak mezu elektronikoa jasoko du, sarrera egokitu zaion ala ez jakinaraziz. REALeko webgunean (www.realsociedad.eus) ere ikusi ahal izango du sarrerarik egokitu zaion, horretarako prestatu den moduluen bidez.

Aste batzuk igarota, bigarren komunikazio batean, REALak eserlekuaren aukeraketari eta sarreraren ordainketari eta bidalketa digitalari buruzko informazio guztia jakinaraziko die irabazleei, posta elektronikoa bidez.

Sarrerak Espainiako Futbol Federazioak (aurrerantzean, "RFEF") sarreraren salmentarako duen atarian ordainduko dira, RFEFek sortu eta REALak Bazkide irabazleari edo, eskaera batera egin dutenen kasuan, taldeko Bazkide eskatzaileari bidaliko dion sarrera kodearen bidez. Nolanahi ere, ordainketa RFEFen ticketing atariaren bidez egin ondoren, ez da itzulketarik onartuko.

5. artikulua.- Soberako sarrerak

Sarrerak eskuratzeko ezarritako epean Bazkide irabazlea sarrerak hartzeko aurkezten ez bada, eskubidea galdu egingo du.

Arrazoia edozein dela ere, Bazkide irabazleek hartzen ez dituzten sarrerak zozketan ezarritako hurrenkeran esleituiko dira, azken sarrera jaso zuenaren atzetik geratu ziren Bazkideen artean. Azkenean inork hartu ez dituen sarrerak KLUBaren esku geratuko dira.

6. artikulua. - Sarrera banaka edo batera saltzeko debekua

Bazkideari zozketan esleitutako sarrera ezin izango da saldu. Baldintza hori funtsezkoa da zozketan parte hartzeko, eta Bazkideak baldintza hori betetzen ez badu edo ez betetzen saiatzen bada, ezin izango du hiru urtez KLUBak aurrerantzean zozkatutako dituen sarrerak eskuratu, eta denbora horretan ezin izango du beste zozketa batzuetan izena eman. Bazkidea izango da esleitu zaion sarreraren erabileraren edo sarrerarekin egiten denaren erantzule zuzena, baita aipatutako salmenta saiakeren erantzulea ere.

Zozketan parte hartuta, Bazkideak berariaz onartzen ditu baldintza horiek eta baldintzok ez betetzearen ondorioak, eta KLUBari agintzen dio ez duela sarrera salduko ez bere kabuz, ez hirugarrenen bidez.

7. artikulua. - Estadiora sartzeko eta bertan egoteko aplikatu beharreko araudia betetzea

Zozketan parte hartu eta sarrera bat eskuratu dutenek Sevillako La Cartuja Estadiora sartzeko eta han egoteko eta han izan beharreko portaerari buruz arau eta baldintza guzti-guztiak betetzeko konpromisoa hartzen dute, prozeduran parte hartzeko funtsezko



baldintza gisa. Era berean, REALAren aurrean berariaz onartzen dute arau eta baldintza horiek ez betetzearen erantzule direla, eta badakite eta onartzen dute KLUBak eskubidea duela ez-betetze hori gertatuko balitz erakunde eskudunek ezar ahal dizkieten zigorrak beraiei jasanarazteko.

8. artikulua. - Oinarriak onartzea

Zozketan parte hartzeak oinarri hauek erabat eta baldintzarik gabe onartzea dakar. Era berean, parte hartzaileek onartzen dute REALAk horrekin lotuta sor daitekeen edozein arazo konpontzeko duen irizpidea. REALAk, gainera, oinarri horiek baliogabetzeko, bertan behera uzteko edo aldatzeko eskubidea du, baita zozketa antolatzeke edo kudeatzeko ere, betiere horretarako arrazoi justifikaturen bat badago.

9. artikulua. - Oinarriak argitaratzea

Zozketaren oinarriak argitaratu egin dira eta REALAren webgune ofizialean (www.realsociedad.eus) daude ikusgai interesa duen edozein Bazkiderentzat.